



Seber Altube Ikastola


Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxa: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282



•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.eus

SEBER ALTUBE APP – FAMILIENTZAKO GIDA

1. Aplikazio guztiak agertzen diren menua zabaldu behar dugu. Bertan “play store” edo “app store” aplikazioa aurkitu eta zabaldu. Bilatzailean “Seber Altube App” idatziko dugu. Ondoren “instalar” klikatuko dugu.



2. Instalatu eta gero gure mugikorrean aplikazioa bilatu eta zabaldu egingo dugu. Bertan gure erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko ditugu. ****OHARRA****: Datu hauek eduki ezean, 2 aukera:
 - a. “Recuperar contraseña” botoia sakatu eta zure helbide elektronikoa sartu. Horrekin mezu bat jasoko duzu pasahitza berreskuratzeko.
 - b. Lehenengo aukerarekin ezin badituzu datuak berreskuratu, dperez@seberaltube.net helbidera idatzi.



Erabiltzailea
d.perez.1

Pasahitza
.....

SAIOA HASI

Recuperar contraseña






Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxe: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282
•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.eus

3. Beheko aldean aplikaziotik mugitzeko botoiak daude. Lehenengo botoia, eta aplikaziora sartzen garen bakoitzean agertzen zaigun lehenengo atala "horma" da. Bertan bidali diren ohar eta dokumentu guztiak agertuko dira. Beherantza joanda, ikasturtean zehar bidalitako informazio guztia aurki daiteke. Goian eskumako aldean bi botoi daude:
- Lehenengoa iragazkia da. Bilaketa bat egin nahi dugunean erabili daitezkeen iragazki desberdinak dira.
 - Bigarrena saioa zarratzeko edo laguntza teknikoa eskatzeko da.





Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxa: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282

• E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.eus

4. Hurrengo atala “nire seme-alabak” da. Bertan zuen seme-alaben datuak ikusi ahal izango dituzue. Atal honetan eskertuko genizueke zuen seme-alaben argazkiak perfilen ipiniko bazenute. Haur batetik bestera pasatzeko goian ezkerrean agertzen diren botoietan klikatu behar dugu. Botoi bakoitzean zuen seme-alaben inizialak agertzen dira. Beherago 4 botoi agertzen dira:

- Kalifikazioak: Noten boletinak ikusteko.
- Dokumentuak: Fakturak eta boletinak ikusteko.
- Elkarrizketak: Elkarrizketa sasoian, irakasleak hemen jarriko dituzte beraien orduak gurasoei batzartzeko eta zuek bertan sartuz hitzordu bat hartu beharko duzue.
- Ordutegiak: Zuen seme-alaben gelako ordutegia ikusteko.

SEME-ALABAK AUKERATZEKO BOTOIA

NIRE SEME-ALABAK

PROFILA EDITATU



Eskola Jasangarria Ziurtagiria







Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxe: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282

•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.eus

5. Hurrengo atala jasotako jakinarazpenak dira. Bertan ikastolatik bidali diren mezuak daude. Atal honetan ere iragazkia erabili daiteke bilaketaren bate gin nahi ezkerro.

Jasotako jakinarazpenak   → **IRAGAZKIA**


DAVID PEREZ GARCIA 21/1/12
GUZU: Sukaldaritzako taldeen ald...
Arratsalde on guraso, Sukaldaritzako taldeak aldatu ditugu. Informazio guztia erantsita aurkituko duzu. Izena eman nahi baduzue, dperez@seberaltube.ne





← **ERANTZUN**

DAVID PEREZ GARCIA 21/1/11
2021-2022 IKASTURTERAKO MA...
2019 URTEAN JAIOTAKO UMEAK BAKARRIK
Matrikula (urtarrilak 18- urtarrilak 28) bi eratara egin daiteke: - Ikastetxearen eskaera on-line egin, eta gero,

← **ERANTZUN**

DAVID PEREZ GARCIA 20/12/23
Lan-poltsak osatzeko deialdia
Kaixo lagun! Seber Altube Ikastolan lan-poltsak irekiko ditugu. Ikasketa prozesuan gure bidelagun izan nahi baduzu, harremanetarako gaitasuna baduzu,

← **ERANTZUN** 

   → **NIRE KOMUNIKATUAK** 






Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxe: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282
•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.eus

6. Azkenengo atala “galeriak” da. Hemen irakasleek argazkiak igongo dituzte gurasoek eskura izateko.



7. Aplikazio osoan zehar, beheko aldean eskuman, “+” itxurako botoi bat dago. Hau irakasleei mezu bat bidaltzeko da. “+” botoian klik egin eta gero jakinarazpen berria. Gero nori atalean eta berriz “+” ikurra jota irakaslea aukeratu beharko dugu. Gaia idatzi irakasleak jakitzeko zeri buruz dan mezua eta azkenik mezua idatzi beharko dugu. Goian eskuman, bidaltzeko botoia dago.

